

publizitatea



2014AN ERE ZUREKIN EGON NAHI DUGU

ttipi-ttapa
Lagundu gaitzazu zure harpidetza berrituz hemen
948 635 458

Ni harpide naiz



Arxuriko zohikaztegiak balio ekologiko eta historiko handiak ditu.

GIZARTEA

Hezeguneen Nazioarteko Eguna Baztan eta Zugarramurdin ospatuko du Nafarroak

Martxoaren 16an Arxuriko eta Belateko zohikaztegiak ezagutzeko emanen du Life Tremedak proiektuak

Nafarroa | 2014-03-11 | 07:35 | Testua: TTIPI-TTAPA | Argazkia: Utzitako argazkia

Nafarroak Hezeguneen Nazioarteko Eguna Baztanen ospatuko du, Arxuriko eta Belateko zohikaztegiara Life Tremedal proiektuarekin ezagutzeko bisitaldi batekin. Arxuri arras toki berezia da, balio ekologiko eta historiko handiak dituelakoz. Horregatik sartu da Life Tremedalean.

Martxoaren 16an, igande goizeko 9:30ean, Iruñeko Tres Reyes hotelean harrera egin eta autobusa abiatuko dira. 10:30ean Elizondon izanen da autobusa hartzeko aukera eta 11:00etan Zugarramurdira ailegatuko da. Hamaiketakoaren ondotik, bisita gidatua egingen da Arxuriko zohikaztegia ikusteko. 13:30ean Life Tremedal aurkezteko ekitaldia egingen da eta bertan azalduko dira proiektuaren aurrerapenak eta Baztango zohikaztegien deskribapena. 14:00etan denbora librea utziko da bazkaltzeko eta 15:45ean berriz ere autobusa abiatuko da Zugarramurditik. Elizondon gelditzeko edo Belateraino segitzeko aukera eskainiko da. Izan ere, 16:50ean Belateko zohikaztegia ikusteko bisita gidatua egingen dute. 17:30ean, Elizondora edo Iruñera itzulera egingen da.

Zohikaztegiatarako bisita hauetan parte hartzeko edo argibideak jasotzeko martxoaren 13a baino lehen eman behar da izena, 639 821758 edo 948 581279 (Baztango Kultur Zerbitzua) telefonoetara deituz, 09:00etatik 14:00etara. Bisitaldia erabat doakoa da.

Geure buruaz | Pribatasun politika | Kontaktua

TTIPI-TTAPA | Koskontako bidea, 07 - 1 | 31770 LESAKA (Nafarroa)
Tel: 948 63 54 58 | Faxa: 948 63 54 57
Diseinua: Ttipi-Ttapa | Garapena: [iametza interaktiboa](#)

Laguntzailea:

